# 8 DE MARZO

En pleno siglo XXI, la violencia contra las mujeres, el acoso sexual, la desigualdad y la discriminación por razones de sexo, continúan siendo realidades a combatir. Hemos entrado en una nueva era pero todavía hay cosas que no han cambiado. La Democracia y la Libertad de Expresión y Prensa han conseguido que la sociedad sea consciente de la existencia de hombres que pegan a sus parejas hasta la muerte, que existe abuso físico y acoso laboral y que todavía esta mejor visto que determinados trabajos sean exclusivos de hombres.

Formamos parte de una sociedad instalada en un nuevo milenio en el que las mujeres constituyen más del 50% de la población mundial, de este porcentaje el 70% de la población pobre es femenina, más del 30% son analfabetas, por no olvidar las más de 100.000 mujeres que mueren anualmente por abortos clandestinos, por violencia sexual o por la extirpación de sus órganos genitales.

A estas alturas de la vida, hay muchas personas que piensan que todo esto solo ocurre en el Tercer Mundo. Pero la realidad es que durante el pasado año, más de 60 mujeres fueron asesinadas por sus maridos o exmaridos en todo el Estado español. Nuestra sociedad ha relegado a las mujeres al ámbito de lo privado, encumbrando al género masculino al ámbito público. Las teorías feministas parten de la evidencia de que el principio de la desigualdad tiene su base en las relaciones culturales que han desarrollado e impuesto una sociedad patriarcal de dominio. Esta realidad ha supuesto para todas nosotras un proceso difícil de construcción de nuestra propia identidad.

No quisiera dejar de expresar, el agradecimiento y el reconocimiento a muchas de las mujeres que nos precedieron, entre otras muchas, a las más de 120 mujeres de la empresa textil norteamericana"Triangle Shirtwaist Company" pioneras en la lucha por la mejora de las condiciones laborales de las mujeres, atacadas y detenidas por la policía y abrasadas en 1.911 en el incendio de la fábrica en la que trabajaban gracias a las inexistentes medidas de seguridad y a la actuación homicida del dueño de la fábrica.

MARTA ALARCÓN BETES
Coordinadora de Frida

# MARTXOAREN 8A

XXI. mendean bete-betean sarturik gaudela, emakumeen aurkako indarkeria, sexu erasoak, desberdintasuna eta sexuagatiko bazterkeria aurre egin behar diegun errealitateak dira oraindik. Aro berriari ekin diogu, baina oraindik badira aldatu ez diren gauzak. Demokraziari eta Adierazpen zein Prentsa Askatasunari esker, gizartea ohartu da hainbat gizonek euren bikotekideak hil arte jotzen dituztela, abusu fisikoak eta lan jazarpenak gertatzen direla eta oraindik hobeto ikusita dagoela lanpostu batzuk gizonezkoentzat baino ez izatea.

Milurteko berrian murgilduta dagoen gizarteko partaide gara eta emakumeak munduko biztanle guztien %50 baino gehiago dira. Ehuneko horretatik, biztanleria pobrearen %70 emakumez osatuta dago, %30 baino gehiago analfabetoak dira eta ez ditugu ahaztu behar urtean 100.000 emakume baino gehiago hiltzen direla ezkutuan abortatzeagatik, sexu indarkeriagatik edo sexu organoak erauzteagatik.

Oraindik ere pertsona askok uste dute hori guztia Hirugarren Munduan soilik gertatzen dela. Baina errealitateak erakusten digu iaz 60 emakume baino gehiago hil zituztela euren senarrek edo senar ohiek Espainiako Estatuan. Gure gizarteak eremu pribatuan zokoratu ditu emakumeak eta eremu publikoaren gailurrera eraman ditu gizonak. Teoria feministak ebidentzia batetik abiatzen dira: desberdintasunaren printzipioaren oinarria gizarte patriarkal eta menderatzaileak inposatutako kultura harremanetan dago. Errealitate horrek geure identitatea eraikitzeko zailtasunak eragin dizkigu emakume guztioi.

Ez nuke bukatu nahi gure aurretik izan diren hainbat eta hainbat emakumerentzako esker onak eta oroimena adierazi gabe, besteak beste Estatu Batuetako "Triangle Shirtwaist Company" ehungintza enpresako 120tik gora emakumeentzat. Beraiek aitzindariak izan ziren emakumeen lan baldintzak hobetzeko borrokan, poliziak eraso eta atxilotu zituen eta, 1911. urtean, haien lantegian izandako sutean kiskalita hil ziren, batere segurtasun neurrik ezagatik eta enpresako jabearen jokabide giza hiltzaileagatik.

MARTA ALARCÓN BETES
Frida aldizkariko koordinatzailea